

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Dirubilketa Zerbitzua

Zuzeneko kudeaketa eta adjudikazio bidezko salmentaren iragarkia

2004EXP48001203 premiamendu prozeduran zordunari enbargatutako ondasun higiezin jabari osoaren heren zatiezinen eskubideen enkante publikoa adjudikatu gabe geratu da bere bi lizitazioetan. Enkante horren iragarkia 2024ko uztailaren 12ko 78 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketaren Arautegi Orokorren 180. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, urriaren 9ko 4868/2024 Ebazpenaren bidez baimena eman da ondasun higiezin jabari osoaren herena zuzeneko kudeaketa adjudikazio bidez saltzeko. Hauek dira ondasun higiezinak:

Bat zenbakiko sorta.

Hirikoa. Bost zenbakia. Beheko solairuko bosgarren merkataritza lokala. Argentina kaletik du sarbide zuzena eta independentea. Berrogeita hemeretzi metro eta laurogeita hamazazpi dezimetro karratuko azalera erabilgarria du. Muga hauek ditu Argentina kaleko fatxadan: aurrealdean, kale hori; atzealdean, Argentina kaleko hamar zenbakia duen etxe fisikoaren igogailua eta eskailera kaxa, eta aparkaleku eremu pribatua beheko aldean, eta etxadi patioa goiko aldean; eskuinean, Argentina kaleko hamar zenbakia duen etxe fisikoaren ataria eta aipatutako eskailera kaxa eta igogailua; eta ezkerrean, hortik bereizitako lokala. Kuota: ehuneko bi oso eta beste oso baten laurden eta hogeita hamazortzi milaren.

Katastroko lurzati honi dagokio: 59-1161.76-1-1-13.

Jabearen eskubideak enbargatutako finkaren gainean: jabari osoaren ehuneko 100.

Vitoria-Gasteizko 1 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatuta, 3271 liburukian, 84 liburuan, 01 Vitoria-Gasteizko udalerrian, 128 folioan; 4011 zenbakiko erregistro finka.

Finka horren gainean hipoteka bat dago inskribatuta Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Madriden alde, Jesús Rodilla Rodilla notarioaren aurrean Vitoria-Gasteizen 1996ko irailaren 20an egiletsitako eskrituraren arabera. Eskritura horren 7. inskripzioa eragin zuen 1996ko azaroaren 6an. Caixabanken 2023ko ekainaren 9ko idazkiaren arabera, egungo titularrak ez du hipoteka kontraturik indarrean; horregatik, kreditua ekonomikoki kitatuta dago, eta, ondorioz, ez dago Foru Aldundiak egindako eta espediente honetatik etorritako enbargo idatzoharren aurreko beste karga ekonomikorik.

Enkantean gutxieneko tasatze erabiliko den balioespina: 48.100,00 euro.

Bi zenbakiko sorta.

Hirikoa. Sei zenbakia. Vitoria-Gasteizko eraikineko beheko solairuko seigarren merkataritzako lokala edo lonja, iparraldean Enrique Eguren kalera eta mendebaldean Argentina kalera ematen duena, lehenengoan hamaika eta bigarrenetan hamar zenbakiekin seinalatua. Argentina kaletik du sarbide zuzena eta independentea. Laurogeita bost metro eta hirurogeita bost dezimetro karratuko azalera erabilgarria du. Mugak, Argentina kalera ematen duen fatxadan: aurrealdean, barruko lerroan, Argentina kaleko hamar zenbakiko etxe fisikoaren eskailera kaxa eta, kanpoko

lerroan, aipatutako kalea; atzealdean, beheengo aldean, aparkaleku gune pribatua eta gorengo aldean etxadi patioa; eskuinean, Argentina kaleko zortzi zenbakiko etxea, zenbait jaberena dena; eta ezkerrean, Argentina kaleko hamar zenbakia duen etxe fisikoko ataria eta eskailera kaxa. Kuota: ehuneko hiru oso eta beste oso baten lauhun eta berrogeita hamazortzi milaren.

Katastroko lurzati honi dagokio: 59-1161.76-1-1-14.

Jabearen eskubideak enbargatutako finkaren gainean: jabari osoaren ehuneko 100.

Vitoria-Gasteizko 1 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatuta, 3364 liburukian, 91 liburuan, 01 Vitoria-Gasteizko udalerrian, 26 folioan; 4150 zenbakiko erregistro finka.

Finka horren gainean hipoteka bat dago inskribatuta Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Vitoriaren alde, Jesús Rodilla Rodilla notarioaren aurrean Vitoria-Gasteizen 1996ko irailaren 20an egiletsitako eskrituraren arabera. Eskritura horren 7. inskripzioa eragin zuen 1996ko irailaren 20an. Kutxabanken 2023ko apirilaren 5eko idazkiaren arabera, ez dago finka horren gaineko kargarik erakundean; horregatik, kreditua ekonomikoki kitatuta dago, eta, ondorioz, ez dago foru aldundiak egindako eta espediente honetatik etorritako enbargo idatzoharren aurreko beste karga ekonomikorik.

Enkantean gutxienerako tasatzen erabiliko den balioespena: 67.800,00 euro.

Arabako Lurralde Historikoko Dirubiltetarako Araudi Orokorren 180.5.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zuzeneko adjudikazioaren gutxienerako prezioa enkantearen tasaren ehuneko 50 izango da lehen lizitazioan, bi lizitazio egin baitira enkante publikoan, hau da, 24.050,00 euro lehenengoarengatik sorta eta 33.900,00 euro bigarrenekatik sorta.

Interesdunek sinatutako eskaintza gutun azal itxian aurkeztu beharko dute Derrigorrezko Dirubiltetako Bulegoan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Gutun azal horrekin batera, beste gutun azal bat aurkeztu beharko da, honako agiri hauekin:

a) Lizitatuzailearen nortasun agiri nazionala eta, hala badagokio, duen ordezkari justifikatzen duen eskritura publikoa edo agiria.

Dokumentu horien ordezkari, kopia konpultsatua edo erkatua aurkeztu ahalgo dira.

b) Arabako Foru Aldundiaren aldeko txeki adostua, edo fidantzaren zenbatekoa duen eskudirua, zeinak bigarren lizitazioan eskatutakoaren berdina izan beharko baitu, hau da, 7.215,00 euro lehenengoarengatik sorta eta 10.170,00 euro bigarrenekatik sorta.

Interesdunek egindako eskaintzak jasotzen dituzten gutun azalak ireki ondoren, interesdunek eskaintzari uko egiten badiote edo eskaintza erretiratu nahi badute, fidantzaren zenbatekoa galduko dute.

Eskaintzak aurkezteko epea iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik –edo hurrengo egun baliadunetik– zenbatzen hasita hilabetea betetzen den eguneko 14:00etan amaituko da.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egun baliaduneko goizeko 10:00etan irekiko dira eskaintza ekonomikoen gutun azalak, Derrigorrezko Dirubiltetako Bulegoaren lokaletan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Eskaintzaileak lokal, egun eta ordu horretan egon ahal izango dira.

Dirubilteta Zerbitzuaren buruak irekiko ditu aurkeztutako eskaintzen gutun azalak, eta adjudikatzeko proposamen arrazoitua egin ahalgo zaio enkante mahaiari, haietakoren bat une horretan nahikotzat jotzen bada. Osterantzean, epea beste hilabete batez luzatuko dela iragarriko da, eskaintza berriak aurkezteko edo daudenak hobetzeko, une horretara arte aurkeztutako eskaintzen baliozkotasunari kalterik egin gabe, eta horrela hurrenez hurren, sei hilabeteko guztizko mugarekin.

Agiri publikoa formalizatzeko gastuak, erregistro gastuak eta zuzeneko kudeaketa eta adjudikazioaren bidez egindako salmentaren ondoriozko zergak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo bost egun baliodunen barruan ordaindu beharko du prezioa adjudikaziodunak. Hala egin ezean, adjudikazioa baliogabetu egingo da, eta adjudikaziodunak fidantzaren zenbatekoa galduko du. Gainera, sortutako kalte-galera guztiak ordaindu beharko dizkio administrazioari.

Eskaintzarik ez badago edo aurkeztutakoak nahikoa ez direla uste bada, adjudikatu gabeko ondasunak Arabako Foru Aldundiari adjudikatzeko izapideei ekingo zaie, Dirubilketarako Araudi Orokorraren 188. artikulua eta hurrengo arabera.

Interesdunek baldintzen berri izan ahal izango dute Derrigorrezko Dirubilketako Bulegoan (Probintzia plaza 13, behe, Vitoria-Gasteiz). Telefonoa: 945 26 57 40.

Hori guztia ALHAOn argitaratzeko agintzen dut, eta ohartarazten iragarki honek adierazten duela helbide ezezaguna duten zordunak jakinaren gainean geratzen direla, bai eta administrazio arloan interesa duten hirugarrenak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 7a

Dirubilketa Zerbitzuaren burua

JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE